

SABINO ARANA GAISORIK

Loiola'ko artxiboan ba-dago Jesusen lagundiko Aita Jose Iñigo'k idatzitako «EGUNARI» bat (berak ala deitzen deutso) 1858 urtean asi, eta 1891 urtean amaitzen dana...

Arana Jose Iñigo Orduña'n

aurkitzen zan Sabino Arana ango ikastetxean oso gaizki gaisotu zanean, 1881n. urtean.

Sabino Arana'ren gaisoaldiari buruz «EGUNARI» onek zer diñoen, egunez egun agertu gura

neuke, irakurleentzat interesgarri izan daitekela uste dodalako.

Jose Iñigo'k Sabino'ren abizen berbera euki arren, ez eukan Abando'ko Aranatarrekin senidetanunik, Azkoitiarra zan.

JOSE IÑIGO ARANA'REN EGUNARIA

1881 urtea..... Garagarrilla (ala deitzen deutso «Junio» illari)

16. Osteguna. Eguraldi ona. Corpus Cristi. Ibildeuna Orduña'ko kaleetan zear. edergaillu, musika eta ziripletakin (cohetes). Ikasleak taldeka uriko enparantzan... Sabino Arana'ri eleizakoak emoten deutsoez, bere gaisoaldia —katarrozko sukarra— (calentura catarral) txarragotu dalako. An dagoz bere ama eta arrebea.
17. Ostirala. Eguraldi ona. Goizean eskolak. Gau txarra. Sabino Arana ikasleak oso gaizki jarraitzen dau. Goizean osagilleen batzarra: V..... eta B..... osagille jaunak eta abar. Arratsaldea. Bere gurasoak eta anai-arrebak berarekin dagoz. Valladolid'tik azterkariak (examinadores) etorri dira: Pola, Picabea, Galo eta Perez Minguez.
18. Larunbata. Eguraldi ona. Azterketak asi dira. Lau ikasleak naiko gaizki jarraitzen dabe: Arana, Albizuri, Celestino S. Pelayo eta Villar.
19. Igandea. Eguraldi ona. Osagilleen batzarra gaisoi buruz. Etxeko bizargillea ere alborengoaz (pulmoniaz) gaisotu da. Albizuri jagi da, eta beste geisoak obetotxoago. Sabino Arana'ren gurasoak emen gelditu dira.
20. Astelena. Sargori. Azterketak aurrera doaz, beti legez. Iru gaisoak obetotxoago... Illuntzean irurak zerbait astunago gaurko sargoriaz...
21. Asteartea. Eguraldi ona. San Luis Gonzaga'ren jai. 9'tan meza nagusia. Azterketak aurrera doaz. Arana gaizkiago. Arratsaldean, Aranak gaizkiago jarraitzen dau. Besteak obeto.
22. Asteazkena. Eguraldi ona. Arratsaldean euria, zirimiria. Azterketak aurrera doaz. Arana ere obeto. Beste biak ondo, Jaungoikoari eskerrak. Laus Deo.
23. Osteguna. Laiñoa. Eguraldi ona. Gaisoak ondo, azterketak ere bai.
24. San Joan. Eguraldi ona. Sabino Arana ondo. Azterketak aurrera. Gaisoak obeto. Ikasleen

- gurasoak etorten asi dira ikasurteko azken Sarien Banaketarako... San Joan eguneko suak, ziripletakin, zarata andia gau osoan... San Joan zugaitza, eta iturrian lore-uztak (arcos).
25. Larunbata. Eguraldi ona. Beroa. Goizeko 7'etan ikastetxeko «Txaranga» musikaz Antigua'ko eleizan meza aurtengo mesede guztiakatik eskerrak emoteko, baita orain bi urteko gertakariak. Andik datoz bidean «txaranga» jo ta jo, eta onela sartzen dira ikastetxean... Azterketak aurrera doaz. Ikasleen senide ta guraso geiago datoz.
26. Igandea. Eguraldi ona. Meza Antigua'n 7'etan... Arratsaldean Sarien Banaketa aterpe nagusian... Gero ikasle asko euren etxeetara doaz. Gaisoen artean bakarrik Sabino Arana gelditzen da. Gauaz argien jai, ziripletak eta musika.
27. Astelena. Eguraldi ona. Gipuzkoako eta Errioxako ikasle asko bere etxeetara doaz.
28. Asteartea. Eguraldi ona. Batxilerko azterketak asten dira, 1'go urtekoak.
29. Eguraldi ona. San Pedro eta Paulo jai. Batxillerren azterketak aurrera.
30. Osteguna. Eguraldi ona. Azterketak eguerdirako amaitu dira. Sabino Arana, gaisorik egona ere, esamiñatu da.

UZTAILLA

1. Ostirala. Eguraldi ona.....
2. Larunbata. Laiñotsu.....
3. Igandea, Eguraldi ona. Batxiller gaisoa, Arana'tar Sabino obeto dago. Bere Aita Santiago'k eta arrebeak zaintzen dabe... Bere ama eta beste anaia ere etorri dira...

* * *

Aita Arana Jose Iñigo'ren, EGUNARIAK ez dauku Sabino Arana'ri buruz ezer geiago adierazten. Uste dot Uztaillan 3'garren egunean bere guraso eta anai arrebakin Abando'ra joango zala.

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI, S. J.